

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. ELKARRIZKETA SOZIALA EAEN = DANA BERDIN JARRAITU DEZAN INTENTZIOEN ADIERAZPENAK
2. NAFARROAKO GOBERNUAK LANBIDE HEZIKETAKO DIRUA CEN, UGT ETA CCOO-I EMATEKO DESBIDERATU DU
3. KUTXABANK, NORAEZEAN?
4. FALCIANI ZERRENDA ETA HEGO EUSKAL HERRIKO OGASUNAK
5. MUNDUKO POPULAZIOAREN %1AK
ABERASTASUNAREN %48A DAUKA
6. PROPOSAMENA: PREKARIETATEAREN AURKAKO
BORROKA, NAFARROAKO HELa

1. ELKARRIZKETA SOZIALA EAEN = DANA BERDIN JARRAITU DEZAN INTENTZIOEN ADIERAZPENAK

Urtarrila bukaeran EAeko elkarrizketa sozialeko mahaia osatzen dutenek (Euskal Gobernuak, Confebask, CCOO eta UGT) izandako bileretan emandako "lehen emaitzak" ezagutzera eman zituzten. Sinatzaileen esanetan "akorio zehatza eta historikoak" . pena merezi du beraz, horrela den edo ez aztertzeak.

Akordioak ez ziren publikoak egin horregatik hoiengoen inguruan zerbait esateko aukera eza, gardentasunaz ez hitzegitearren.

Pasadan abendutik zazpi dira sinatutako dokumentuak. Horietatik, lau adierazpen instituzionalak dira:

- Lehenengoa, erakunde patronal eta sindikalen depositua arautzen duen Errege Dekretuaren inguruko eztabaida (beste modu batean esatearren Confebasken eskaera ELA eta LAB ilegalizatzeko) argitzeko. Adierazpenak ez du inolaz ere Confebasken eskatutakoa argitzen, erakunde patronal eta sindikalen soberania eta "ohikoak diren ekintzak" praktikan ez jartzeagatik erregistrotik ez baztertzea onartzen du, Beraz, Confebasken eta mahai horretan jesartzen direnen aldeko itxura garbitze bat baino ez zen izan.
- Bigarrena, elkarrizketa sozialaren aldeko gorespen sendo bat da, bere balio eta beharrena. Testua zaharra dirudi, irrealak dirudi batez ere gobernu eta patronalak behetik gorako aberastasunaren banaketa egiten dabilatzatenean.

- Hirugarrenak, "gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko" sistemari sostengua ematen dio. Ontzat hartzen ditu ondorioz, prestazio sozialean emandako murrizketei edo Lanbidek bai lege bidez zein gero eta murriztaileagoak diren irizpideen aplikatzeari.
- Laugarrenak 2020rako euskal enplegu estrategia bat egitearen beharraz dihardu. Euskal gobernuaren planak onartu eta horren inguruko eztabaida mahaian egitea akordatzeko da, demokratikoagoak eta parte hartzaileagoak diren bestelako aukerak kanpoan utziz.

Gainontzeko dokumentuek 2014-2016 Enplegu Planak (ELAk bere garaian aztertutakoa) eta Euskal enplegu sistema eta Enplegu Zerbitzuren Legea landu beharreko ekintzat zehazteko abagune sozio laboralaren eta lan harremanei buruzko irakurketak dira.

Dokumentu hauek Euskal Gobernuak martxan jarritako planak eta aplikatutako politikak onartzen dituzte. Babespeko elkarrizketa soziala deitzen dugun horren adibide dira (parte hartzen duten erakundearen finantziarioaren truke egindakoa). Lerroetan enpresen interesa da nagusi (denak enpresen konpetitibitatea du helburu) eta negoziazio kolektiboan ematen den akordio falta "ordezkatzeko kuota gehiena duten eragileen" esku uzten du (ELA zehar aipatuz).

Akordioek ez dute ezer berri. Neurritz ez kalitatezko enplegua sortzeko, politika aktiboak aldatzeko, soldadak edo lan baldintzat duintzeko. Orainarte porrot egindakoaren jarraipena baino ez da. Hotsandiko hitzak, propaganda, herritarrei iruzurra. Betikoarekin

jarraitzeko lar.

Sailburu berriaren izendapenarekin badira bestelako norabidearen posibilitateaz ari direnak. Beharbada ezkor ulertuko gaituzte baina errealistak gara. Sailburuak argi adierazi zion ELAri: gutxi egin daiteke. Gobernuaren programa berea egin du, neurriak (eta murrizketak), eta azken urteetan Gobernuak egindakoa. Argi dago, ez da ezer aldatuko. Funtsezkoak eta beharrezkoak ez diren gaiak ez dira ikutu ere egiten, fiskaltasuna, aurrekontuak, negoziazio kolektiboa (sektore publiko eta pribatuan), erreformak... Hartutako norabidea beste bat baldin bada benetan zer egin behar den jakiteak ez du ezertarako balio.

2. NAFARROAKO GOBERNUAK LANBIDE HEZIKETAKO DIRUA CEN, UGT ETA CCOO-I EMATEKO DESBIDERATU DU

Nafarroako Gobernuak aurrekontuen aldaketa bat egiteko Lege Proposamen bat aurkeztu zuen, elkarrizketa sozialean pasa den urrian egindako akordioaren eraginez.

Proiektu hau onartua izan da eta Lege bihurtu da dagoeneko UPN, PSN, I-E eta PPren botuei esker. Honen helburua enpleguarekin eta heziketarekin lotutako programa ezberdinak sortzea da, CEN, UGT eta CCOOek aurrera eramanez ditzaten 5,5 milioi euroko aurrekontuarekin.

Programa hauek nominatiboak dira, eta beraz, ez da lehiaketa publikorik izango. 5,5 milioi eurotako esleipena CEN, UGT eta CCOO-i emango zaie zuzenean.

Aurrekontu aldaketa hauekin, Estatutik ezarritako heziketarako kurtsoen subentzioak lehiaketa publikora ateratzeko betebeharrak alde batera uzten dira.

Orain arte, pertsona okupatuei zuzendutako

kurtsoak emateko subentzioak ia modu eksklusiboan esleitu dituzte CEN, UGT eta CCOO erakundeak.

Pribilegio honen zergatia, hiru erakunde hauek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendaritza organuetan daudelako izan liteke, eta kargu horietan egoteaz baliatu litezkeelako esleipenetan emaitza ona izateko. Izan ere, 2014an pertsona okupatuen heziketarako esleitutako subentzioen % 88a CEN, UGT eta CCOOek eskuratu zuten, hau izanik aurrekontu guztiko partida nagusia.

Estatuan egindako legedia berriak subentzio hauek guztiak lehia publikora ateratzera behartzen du. Hiru erakunde hauen monopolioaren galera ekarriko lukeena.

Horregatik UPNren Gobernuak, 2015era begira, ondorengoak egin ditu: lehenik eta behin, 2015eko aurrekontuetatik heziketa profesionalerako aurrekontuaren Nafarroako zatia kendu, aurrekontua 7 milioietik 2ra jaitsiz (orain lehia publikoa exijitzen baita). Era berean, CEN, UGT eta CCOOekin dituen hitzarmenen aurrekontua batzaz beste % 16 igo.

Beste alde batetik, erakunde hauek finantzatzeko Lege hau bultzatu dute, batetik heziketako aurrekontua gehiago murrizten duena (2 milioietatik 1era), eta Estatuko legediaren begietan lehia publikora atera beharko liratekeen beste programa batzuk diruz hustu dituenak. Murrizketa hau osotara 4 milioietakoa da, eta diru hau CEN, UGT eta CCOOekin dituzten bi hitzarmenetara bideratu da. Honekin batera, beste 14 diru partida murriztu dira (aurretik %16 igo dituztenak), eta diferentzia horrekin subentzio berri hauek osatzen dituzte.

Bertan daude Elkarrizketa Sozialeko Kontseiluko parte izateagatik UGT, CCOO eta CEN-ek eskuratuko dituzten 900.000 euroak ere.

Nafarroako Gobernuko aurrekontu-ingenieritzari esker, Estatuko legedia berriak lehia publikora aterako zukeen finantziario bermatzen dute UGT, CCOO eta CEN-ek.

Hau da Nafarroako Erregimenaren funtzionamendua (eta I-Erena ere bai, kasu honetan). Azken finean, UPN, PSN, I-E eta PPK bat egin dute CEN, UGT eta CCOOen zerbitzura jartzeko hauek beraien finantziario bermatua izateko.

3. KUTXABANK, NORAEZEAN?

Kutxabanken giroa arraro dago. Mikel Cabieces-i egindako ordainketa bidegabean iskanbilaren ondoren, azkenik Kutxabankek Mario Fernandez, Mikel Cabieces eta Rafael Alcortaren aurka irekitako auzian ez azaltzea erabaki du, horrelako gomendio legala eman baitiote.

Erabakia sikan harrigarria da, erakundea izan baitzen, Villalabeitia lehendakariaren esku, pasadan urtarilaren 30ean Fiskaltzan Mario Fernandez aurka salaketa jarri zuena, 2012ko hasieran Mikel Cabieces, sozialista eta EAEn Espainiar gobernuaren delegatu ohia, hilean 6.000 euroren truk hiru urtez kontratatu izangatik eta ordain hoiak behar bezala justifikatuak ez zeudelako. Ordainketa Rafael Alcortak bankuarekin, honi zerbitzu profesionalak emategatik, zuen iguala handituta burutzen zen. Administrazio desleial, merkatal dokumentu faltsukeria eta bidegabeko jabetze delituen ustezko egile izatetik, entitatearentzat zuzeneko galerarik ez egotera. Lehendakari ohiak hasieratik egitateak onartu zituen, PP eta PSOEn esanetara egin zuela eta 243.000 euroak itzuli zituen.

Horregatik kutxabankek galerarik egon ez izana ulertzea, eta gertatutakoa salatuz legez ezarritako egin zuela, Fiskaltza bakarrik geratzen da auzian, delitua publikoa izanik ahalbiratua

dago, beti ere defentsan zailtasun handiak izanda, noski.

Aste hauetan zehar argi geratu da parteen jarrera eta baita alderdi politkoena ere. Datak eta hauteskunde garaian gaudela kontutan izanda, bakoitzaren zarata nahia ezberdina izan da. Askok, izendatu zutenek adibidez, lehendakari ohia arriskuaren aurrean isolatua utzi dute, bere garaian faborea eskatu ziotenaren antzera eta oposizioak azalpenak eskatu eta auzian parte ez hartzea kritika bihurtu du. Ikerketa komisia bultzatzea ere ez du interesik izan. Horrelakoa da politika, erakundeari egindako kaltearen inguruan, itxura eta sinesgarritasunari ardura askorik ez.

Lehendakaria ere, ez da oso arduratua agertu. Gaia pil-pilean zegoela, bere soldata, admisnirazio kontseiluaren eta bertan parte hartzen duten alderdi politkoen babesarekin, %73an, 800.000 eurotararte igoera ezagutzera eman da. Dena posible da. Beraien esanetan "hori da bankuen eta bankarien maila". Eta berak ez du gaiaren inguruan sortutako iskanbila ulertzen. Otsailaren 27an, joan den ostiralean egindako agerraldian, orainarte bakarra, hori kobratzeko eskubide osoa duela, aurretik zuen lanpostuan baino gutxiago dela eta kutxabank proiektua aurrera doan heinean hori aldatzeko zalantzarik ez duela izango esan zuen.

Gizarte-desberdintasuna hain handia den, non soldata errealak jaisten diren, non prekarietatea eta langabezia ikaragarria den, eta kutxabank izanda (gizarte funtsari erantzuna eman beharko liokeen erakundea izanda) erabakia zentzugabea da. Horrelako erabakiak, kasualitatea, kutxa banku bihurtu dutenen aldekoa da. Iceberg-aren muturra baino ez diren eskandalu hauek, Kapital pribatuari sarerra eman eta prozesua erraztuko dute, arindu ez bada ere.

Horregatik, prozesu honi atzera egin behar zaio, eta kutxabanken kontrol publiko eta soziala berreskuratuz. Oraindik garaia da. Beharbada hemetik urtebetera edo bi urtetara kutxabank handiagoa den banku pribatu abten zati bat baino ez da izango. Horretan dabiltzanak, pozik agertuko dira. Ez da horrela izango gizarte aurrezkoa pertsonen eta herri honen sare produktiboa helburu duen erakunde bat defendatzen dugunontzat.

4. FALCIANI ZERRENDA ETA HEGO EUSKAL HERRIKO OGASUNAK

Herve Falcianik, Genevako HSBC bankuko informatika-teknikariak, bankuan kontuak zituztenei buruzko argibideak bildu zituen 2006 eta 2008 urte bitartean. Informazioa Suitzako agintariei ematen saiatu zen, Europako Batasuneko milaka pertsonak eta enpresak iruzur fiskala egitearen ebidentziak zeudelakoan. Suitzak ez zion jaramonik egin, eta Falcianik Frantziara ihes egin zuen. 2009. urtean eskuratu zuen zerrenda Frantziako gobernuak, eta 130.000 ustezko iruzurgile zeuden, haietatik 24.000 Europako Batasunekoak.

Falciani zerrenda 2010eko hasieran pasatu zieten estatu espainoleko agintariei. Eta Espainiako Gobernuak, bere aldetik, helarazi zien Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako foru-ogasunei. 150etik gora EAEkoak ziren, eta Nafarroako kopuru zehatza ez da ezagutzen.

Ogasunek (bai estatu espainolean, bai Euskal Herrian) abantailazko tratua eman zieten zergak ordaindu ez zituztenei:

- Aurreko lau urteetako zergak erregularizatzen behartu zituzten, besterik ez. PFEZ eta, izatekotan, Ondarearen gaineko Zerga.
- PFEZaren gainean izan zuen eragina

interesak deklaratzeko zen, eta zegokion gainkargua (benetan merkea).

- Zergen erregularizazio hori, gainera, "borondatez" egitea eskaini zieten, inolako ikuskapen fiskalik ireki gabe, zehapenik gabe, eta delitu fiskalik egin denik jo gabe. Horrez gain, HSBCk funts horiek bankuan lau urtez baino gehiagoz egonak zirela kasu guztietan esatea ontzat eman zen. Beraz, funts horien jatorria ez deklaratzeko egon zitezkeen iruzurra preskribaturik zegoen.

Beraz, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako ogasunek izan zuten jokabidea immorala bezain ulerkorregia izan zen Suitzako kontu ezkutuetan zergak saihestu zituztenekiko. Ogasuneko ikuskarien sindikatuak errekurritu zituen estatuko ogasunaren jarraibideak, ikuskapen fiskalak irekitzeari uko egitekoak. Orain Madrilgo Audentzia ikertzen ari da, ea estatuko ogasuneko arduradunek delituzko jokabidea izan ote duten. Euskal Herrian, ostera, ez da ikuskapenik egin; nahiz eta euskal ogasunen jokabidea estatu espainolekoaren berbera izan.

Baina mesedezko tratua ez da hor bukatu. Ogasunek Falciani zerrenda jaso zuten garaian, zilegi zen ezkutuko kapitalak azaleratzeko borondatezko aitortpenak egitea. Egoera merke-merke erregularizatzeko aukera zegoen. Eta hori gertatu zen. 2012an Espainiako Gobernuak amnistia fiskala onetsi zuen. Horren arabera, urte hartan zilegi zen kapitala azaleratzea, eta %10 ordaintzearen truke egoera erregularizatzea (HSBCren zerrendaren erregularizazioan ordaindu zena baino gehiago). Neurri hura arrazoi osoz kritikatu zen, iruzur fiskalari erabateko eskua ematea baitzen. Hain zuzen ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako ahaldun nagusiak eta Nafarroako lehendakaria (Jose Luis Bilbao, Martin Garitano eta Yolanda Barcina) jendaurrean agertu ziren amnistia fiskal hori

hemengo lurraldeetan ez zela aplikatuko aldarrikatzeko.

Baina Montororen amnistia fiskalaren arabera —Arabaren ere aplikatu zena— 2012tik aurrera azaleratuko zen kapital oro azken urteotan sorturiko ondare-gehikuntzat hartuko zen. Hau da, Falciani zerrendakoa errepikatuz gero, kapital osoagatik ordaindu beharko ziren zergak, eta ez bakarrik interesengatik. Hori diote arauak estatu espainolean eta Araban. Hala ere, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan merkealdiko prezioan erregularizatzeko aukerari eutsi diote. Beraz, Euskal Herriko zatirik handienean aplikatzen den araua zabalagoa eta iruzurgileen aldekoagoa da.

HSBCren zerrendarekin gertaturikoa izozmendiaren tontorra baino ez da. Gobernuak itxurakeria handiz jokatzen dute. Haien laguntzarik gabe horrelako gauzak ez ziren gertatuko. Alternatibak eta neurri zehatzak badaude, ELAk bere azken fiskalitateari buruzko txostenean proposatzen dituenak bezalakoak, iluntzaletasuna eta paradisu fiskalak alboratzeko.

Estatu espainolean Zapatero gobernuak uko egin zion Falciani zerrendaren inguruan ikuskapen fiskalak egiteari. Nafarroan UPNK. Araban PP zegoen agintean. Bizkaian eta Gipuzkoan EAJ zegoen (Gipuzkoan garai hartan Hamaikabatekin). Nafarroako, Bizkaiko eta Gipuzkoako oraingo ogasunek (hurrenez hurren UPN, EAJ eta Bildu buru dutela) uko egin diote iruzurgileentzako trataera gogortzeari. Benetako orduan, argi dago erakundeek onarpen zabala erakusten dutela, eta horregatik ez dute gogoz bultzatzen iruzur fiskalaren aurkako borroka. ELAk borondate politiko irmoagoa eskatu izan du aspalditik, baina haren ezak distira egiten du. Iruzur fiskalak milaka milioi euro kentzen die euskal ogasunei. Horri bidea moztea lehentasunezkoa izan beharko litzateke. Iruzurgileei ematen zaien aparteko

trataera kontrajarrita dago propaganda eta etengabeko mezuekin, iruzurra gizarte-prestazioen aurka doala diotenekin. Horren azpian dagoen asmo bakarra murrizketa berriak zuritzea da.

Falciani zerrendaren euskal izenak ez dira ezagutzera eman. Euskal ogasunen ohiko iluntzaletasunaren beste adibide bat da. Fiskalitatean zer gertatzen den ezkutatzeko interesa badago, gizartearen ereduaren gainean sortuko zen funtsezko eztabaida saihestearren. Ez da harritzekoa ate birakariak egotea, Euskal Herrian ere bai, enpresen, gobernuen (ogasun-sailak ere barne) eta patronalaren artean. Elkar babesten dute.

5. MUNDUKO POPULAZIOAREN %1AK ABERASTASUNAREN %48A DAUKA

Oxfamen *“Riqueza: Tenerlo todo y querer más”* txostenean argitaratutako datuak beldurgarriak dira. Bizi garen mundua irudikatzen du, eta neoliberalismo basatiaren aurkako borrokari zilegitasuna ematen dio.

2014an, munduko aberastasunaren %48 populazioaren %1aren esku zegoen, gainontzeko % 99ak aberastasunaren %52 zuen bitartean. %52 horren zati handiena populazioaren %20 aberatsenaren esku dago, beraz, populazioaren %80 pobreenak aberastasunaren %5,5a soilik dauka. Joera hau areagotzen ari da gainera. 2010 eta 2014 bitartean, %1 aberatsenaren artean gehien dutenek aurreko urteetan baino azkarrago metatu dute aberastasuna. Gaur egun, munduko 80 pertsona aberatsenak, Forbes zerrendaren arabera, munduko populazioaren %50 pobreenak (3.500 milioi pertsona) duen aberastasun berdinarekin jabe dira.

%1aren perfila. Munduko milamilioidunen herenak baino gehiagok (%34ak) duten aberastasunaren zati bat edo osotasuna herentzia bidez jaso dute, hau da, posizio aberats batetik hasten dira. Aberatsenen %87ak 50 urte baino gehiago ditu, eta %90a gizonezkoa da. %20ak finantza eta aseguru sektorearekin du lotura, sektore hau da aberastasun iturri ohikoena. 2013 eta 2014 artean aberastasun hazkunde handiena izan zuen aberastasun iturria industria farmazeutikoari eta osasun zerbitzuei loturikoa izan zen, aberastasunaren %47ko hazkundearekin. Forbes zerrendako milamilioidunen %5a dira.

Bi sektorek (finantzena eta farmazia eta osasunarena) irabazi handiak dituzte eta beraien aberastasuna gehitzeko errekurtsu handiak dituzte, eta baita arlo politikoan eragiteko ere. Horretarako bide zuzenena lobbyen bidez egiten dena da. Bi sektore hauek dira, hain zuzen, lobby jardueretarako diru gehien zuzentzen dutenak.

Finantza sektoreak 2013an EEBBn 400 milioi dolar eta EBN 150 milioi dolar zuzendu zituen lobby jardueretara. Eta aberastasuna bereganatzen jarraitzen duten bitartean herritarrok berain erreskatea ordaintzen jarraitzen dugu. Osasun zerbitzuen eta farmaziaren sektoreak jarduera hauetara EEBBn 487 milioi dolar baino gehiago eta EUn gutxienez 50 milioi dolar zuzendu zituen. Farmazia sektoreko 3 enpresa handienek 18 milioi dolar gastatu zituzten lobby lanetan, Ebolari aurre egiteko 3 milioi dolarreko dohaintza besterik egin ez zutenean.

Inbertsio handi hauekin gobernuari presio egiten diete, batez ere, aurrekontuetan eta zerga politiketan muturra sartzeko. Eta zoritxarrez, zergen gainean egiten duten lobby lana oso errentagarria da, zerbitzu publikoetan, osasunean eta hezkuntzan erabiltzeko baliabideen murrizketa lortzen baitute. Baina honi aurre egitea posible da, %1 aberatsarenari mesede egin beharrean, guztion interesa babestea helburu duten politika publikoekin. Horretarako borondatea bakarrik behar da.

6. PROPOSAMENA: PROPOSAMENA: PREKARIETATEAREN AURKAKO BORROKA, NAFARROAKO HELA

ELAk Nafarroan bultzaturiko Herri-Ekimen Legegilea (HEL) onartu dute Parlamentuan. Askok izan da HEL honekin lortu dena.

Lehenik eta behin, Lege berri honen edukiaren garrantzia azpimarratu behar da, azpikontratatuak enpresetako prekaritatearen aurka egiten duelako betebeharreko klausula sozialak ezarriz:

- Subrogazioa ezartzen da.
- Sektoreko hitzarmenak gutxienekoak izango dira aurrerantzean, lan-erreforma alde batera utziz.
- Murrizketak geldiarazten dira esleipenaren eta eskaintzaren prezioa gutxienez hitzarmeneko kostuak betetzeko adinakoa izan behar duela ezarriz.
- Eta zigorrak ezarriko zaizkie baldintza hauek betetzen ez dituzten enpresei, zerbitzua kentzerainoko zigorrak.

Beste alde batetik azpikontratazioaren eta prekaritatearen eztabaida Parlamentura eramatea lortu da. Eta emaitza ezin hobea izan da, HEL-a guztien adostasunez onartu baita. Horretarako ELA partidu guztien eskura jarri da.

Beste lorpen bat azpikontatazioaren arazoa kalean eta enpresetan gizarteratzea izan da. 14.635 sinadurak suposatzen dute 14.635 pertsonak, gutxienez, Administrazioak azpikontratzen dituen enpresetako langileen egoeraren berri izan dutela eta kontzientziatu direla.

Zalantzarik gabe HEL honek meritu izugarria du. ELAko militanteek borroka sindikalean une gogoangarria ezarri dute, eta harro egotekoa da. Harrotasuna HEL-a aurrera ateratzea lortu delako, eta posible dela erakusteagatik.

Hau guztiagatik, argi utzi behar da ez litzatekeela ulertzekoa izanen Gasteizko Legebiltzarrak bertan tramitatzen ari den HEL, Nafarroako berdina, ez onartzea.

Sindikatuaren eta Sindikatuaren militantzia osoa konprometituta dago okerren daudenekin, eta gizarte hobetoago bat lortzeko gure ekarpena lana eta borroka direlako adibide bat da hau. Hau ELAtik geldiezin izatea nahi dugun prozesu baten pauso bat gehiago da.